



BANDOA / BANDO



Bando honen bidez, Hondarribiko herritar guztiei jakinarazten diet [Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretua](#) argitaratu dela gaur, 2020ko abenduaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Dekretu horren bidez, prebentzio-neurri espezifikokoak testu bakar batean bildu eta eguneratu dira, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

Arau berria bihar, 2020ko abenduaren 12an, jarriko da indarrean, 00:00etan, eta guztiek bete beharko dugu nahitaez. Arau berriak gutxienez 2011eko urtarrilaren 11ra arte gure bizitzak garatzeko neurriak jasotzen ditu, salbuespenik gabe, eta, horren barruan, Eguberri eta Urteberri egunei dagokien urte-sasoia ospatzea sartzen da, non eta ez den aldez aurretik aldaketarik egin beharrik izango.

Neurri horiek arindu eta malgutu egiten dituzte azaroaren 6tik gaur arte indarrean zeudenak. Egia esan, ez dira erakunde guztiek, batez ere osasunerakundeek, iragarri nahi genituzkeenak, baina horiek dira osasun publikoa babesteko helburua, herritarrek beren bizitza pertsonalean eta sozialean askatasunez mugitzeko eta biltzeko duten eskubidea eta lanbide-eta lan-jardueren garapen osoa bateratze zailaren, ia ezinezkoaren, isla.

Pertsona guztiok jakin behar dugu COVID-19k sortutako gaixotasuna etengabe azaltzen dela, etengabeko kutsatzeen bidez. Aipatutako interesen arteko oreka galtzeak pandemiaren larritasuna areagotzea eragin zuen, eta beharrezkoa izan zen gaur egun aldatzen ari diren neurriak hartzea. Eta, hain zuzen ere, horiek izan dira bizilagunengan duten

Por medio del presente Bando pongo en conocimiento de toda la ciudadanía de Hondarribia que en el Boletín Oficial del País Vasco de hoy, día 11 de diciembre de 2.020, se ha publicado el [DECRETO 44/2020, de 10 de diciembre, del Lehendakari](#), de refundición en un único texto y actualización de medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2..

Esta nueva Norma, cuya entrada en vigor se producirá a las 00:00 horas de mañana día 12 de diciembre de 2.020, y de obligado cumplimiento para todas y todos, sin excepción, recoge las medidas conforme a las cuales debemos desarrollar nuestras vidas por lo menos hasta el día 11 de enero de 2.021, lo que incluye la próxima celebración de la época del año que corresponde a las fechas de Navidad y Año Nuevo, y siempre y cuando no fuese necesario su modificación con anterioridad.

Estas medidas vienen a aliviar, a flexibilizar las vigentes desde el pasado día 6 de noviembre hasta hoy. Ciertamente no son las que nos gustaría anunciar a todas las Instituciones, especialmente a las sanitarias, pero constituyen el reflejo de la difícil, por no decir imposible, conjunción entre el fin de salvaguardar la salud pública, atender al derecho de la ciudadanía a moverse y reunirse libremente en el desarrollo de su vida personal y social, y el desarrollo íntegro de las actividades profesionales y laborales.

Todas las personas debemos ser conscientes de que la enfermedad producida por el COVID-19 se exterioriza constantemente, con continuos contagios. La pérdida de equilibrio entre los intereses citados hizo que la gravedad de la pandemia se agudizara, e hizo necesaria la adopción de las medidas que hoy se modifican.



HONDARRIBIKO UDALA

eraginaren zifrak nabarmen hobetu dituztenak. Baina ez gaitezen engaina, gaur-gaurkoz, nabarmenki azaltzen ez den tokian, eritasuna ezkutuan dago. Hau da, txertoa jartzen ez den bitartean, kutsatzea handitzeko aukera handia izango da. Eta ez dezagun ahaztu gaixotasunak pertsona jakin batzuegan duen eragina oso txarra izaten ari dela, pertsona horien heriotza eragiten ari dela, eta, ondorioz, haien familientzako eta lagunentzako arindu ezin den mina, hain zuzen ere, heriotza horietako asko gertatzen ari diren baldintzen berezitasunagatik.

Ondorioz, oso serio hartu behar ditugu bete beharreko neurriak eta gaur argitaratu den Dekretuan jasotako gomendioak. Behar-beharrezkoa da gure jokabide arduratsu eta solidarioa Eguberrietako eta Urteberriko ospakizunez erabat gozatzeko guztiok dugun nahiaren aurretik jartzea. Gogora dezagun, hain zuzen ere, egun hauetan funtsezkoa den guztia, hau da, senideen eta lagun bilerak, kaleetan, establezimenduetan eta lokaletan jendea biltzea eta maitasun- eta adeitasun-adierazpenak, gaixotasuna transmititzeko biderik nabarmenena dela. Gogoan izan dezagun gure gain hartzen ditugun sakrifizio profesional eta pertsonalek, eta, aldi berean, gainerako herritarren sakrifizioekin batera egiten ditugunek, emaitza kolektiboa eragingo dutela, osasun publikorako, gure bizitza pertsonalerako eta udalerriko jarduera ekonomiko, sozial eta kulturalerako onura nabarmena ekarriko duena.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet, lehenbizi, pertsona gehienei orain arte izandako jokabideagatik; izan ere, agintariek ezarritako neurriak betez eta betez, beren jarrerarekin egun seinalatu hauetan gure bizitzaren garapenaren mugak arinduko dituzten



HONDARRIBIKO UDALA

Y precisamente han sido éstas las que han dado como resultado que las cifras de su incidencia en la población hayan mejorado notablemente. Pero no nos engañemos, hoy por hoy, allí donde no se exterioriza de forma manifiesta, la enfermedad se encuentra latente. Es decir, la posibilidad de su recrudescimiento es muy alta, en tanto no se haga efectivo el suministro de una vacuna. Y no olvidemos que la afección de la enfermedad sobre determinadas personas está siendo fatal, produciendo su fallecimiento, y con ello un dolor para sus familias y amistades que es imposible de paliar, precisamente por la excepcionalidad de las condiciones en que muchos de tales fallecimientos se están produciendo.

En consecuencia, debemos tomarnos muy en serio el acatar y cumplir tanto las medidas obligatorias como las recomendaciones recogidas en el Decreto hoy publicado. Es absolutamente necesario que pongamos nuestro comportamiento responsable y solidario por delante de nuestros deseos de disfrutar plenamente, como a todas y todos nos gustaría, de las próximas celebraciones de Navidad y Año Nuevo. Recordemos que precisamente todo aquello consustancial a estas fechas, reuniones de familiares y amistades, concurrencia de gente en calles, establecimientos y locales y las manifestaciones de cariño y cordialidad, es el camino de transmisión más evidente de la enfermedad. Concienciémonos de que los sacrificios profesionales y personales que asumamos, y que a la vez pongamos en común con los del resto de la ciudadanía, dará lugar a un producto colectivo, que redundará en un notable beneficio para la salud pública, para el desarrollo de nuestras vidas personales, y para la actividad económica, social y cultural del Municipio.

Para finalizar, primero, quiero agradecer a la gran mayoría de las personas la conducta mostrada hasta ahora, ya que, siguiendo y cumpliendo las medidas dispuestas por las Autoridades, han posibilitado con su actitud la



HONDARRIBIKO UDALA

neurri berri horiek hartzea ahalbidetu baitute. Eta bigarrenik, gaur egun oraindik ere modu arduragabeen eta inolako arrazoirik gabe mundua pairatzen ari den osasun-egoera egiazko eta mingarriari bizkarra ematen jarraitzen dutenak gaitzetsi nahi ditut. Herritarren gutxiengo horri eskatzen diot bere jarrera zuzentzeko, eta osasun-egoeraren larritasunaz jabetzeko, osasun-segurtasuneko neurri guztiak alde batera uzten dituzten bilera eta elkarretaratzeetan parte har ez dezaten, gaixotasuna kontrolik gabe transmititzeko foku bihurtu, eta, ondoren, haien senide eta lagunak artean zabaltzen baitute.

Hondarribian, 2020ko abenduaren 11n



HONDARRIBIKO UDALA

adopción de estas nuevas medidas, que van a aliviar las limitaciones del desarrollo de nuestras vidas en estos días tan señalados. Y segundo, censurar a aquellos que todavía hoy siguen dando la espalda de una forma irresponsable, y falta de la más mínima razón, a la cierta y dolorosa situación sanitaria que el mundo está padeciendo. A esta parte minoritaria de la ciudadanía les requiero para que corrijan su actitud, y tomen conciencia de la gravedad de esa situación sanitaria, para que no participen en reuniones y concentraciones en las que se prescinde de todas las medidas de seguridad sanitaria, convirtiéndose en focos de una posible transmisión descontrolada de la enfermedad, que luego propagan en primer lugar entre sus familiares y amistades.

En Hondarribia, a 11 de diciembre de 2020

ALKATEA

Txomin Sagarzazu Ancisar



HONDARRIBIKO UDALA



HONDARRIBIKO UDALA